

YOUTUBE

YOUTUBE

Txosten honetan aurkezten dira 2021-2022 ikasturtean egindako hirugarren inkestan jasotako emaitzak. Youtuberi buruzko gaiak landu dira inkesta honetan.

1. OHAR METODOLOGIKOAK

Azterketa-lan hau egin den unean, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (UPNA) mila ikasletik gorak osatzen dute Ikusiker Panela. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak, beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen-linformazio eta Komunikazio Teknologien erabilerei buruzkoak. Panela 2018-2019 ikasturtean sortu zen Applika izeneko ikerketa-proiektuaren barruan (US17/40). UPV/EHUko NOR ikerketa-taldeak eta EITBk abiatutako proiektuan unibertsitateko ikasketa desberdinetako eta hiru kanpusetako ikasleak biltzen ditu panelak. Galdetegiak encuestafacil.com plataformaren bitartez kudeatzen dira eta hortik jasotako datu baseak Aztiker Soziologia Ikerketa Unitateak ustiatzen ditu.


Txosten honetan aurkituko dituzu 2021eko abenduaren 13tik 20ra bitartean martxan izandako inkestaren emaitzak. Hilabete honetan Youtuberi buruzko gaiak landu dira galdetegiaren bitartez. 1.348 erantzun hartu dira kontuan, baliozko panelista guztienak (inkestaren amaierara iritsitakoak eta errepikatu gabeak).

2. YOUTUBE

Inkesta honetan Youtuberi buruz galdetu da, zer-nolako edukiak ikusten diren eta sortzen diren. Youtuben azkenekoz martxan edukitako aldiari buruz galdeginda, plataforma martxan zeukaten bitartean inkestatuen % 39,2 ez ziren beste ezer egiten ari (“pantailara begira nengoen, besterik ez nenbilen egiten”); hau da, hamarretik sei baino gehiago beste zerbait egiten ari ziren aldi berean.

Egiten ari ziren gauza horien artean bi nabarmentzen dira bereziki: jatea (%19,3k aukeratuta) eta ikasi edo etxeko lanak egitea (%18,9k esana). Ondoren, hirugarren lekuan, etxeko txukunketa lanak adierazten dira (% 6,6k aukeratuta).


1. Irudia – Youtube martxan zenuen bitartean zertan ari zinen?



Iturria: Ikusiker Applika +

Youtubeko kategorien artean gustukoena dutenaz galdetuta, “musika” eta “youtuberrak, gamerrak eta vlogerrak” dira gai nagusiak, inkestatuen % 59,6 biltzen baitituzte (% 30,3k aukeratu dute lehena eta % 29,3k bigarrena). Hortik aurrera, honako kategoriak aipatu dira gehien, ehuneko bitik gora: elkarriketak (% 6,0), makilajea eta moda (% 5,4), kirol mundua (% 4,9), zinea eta serieak (% 4,1), komedia, memeak eta parodiak (%3,4) eta podcastak eta irratia (% 3,3).


2. Irudia – Zein da Youtuben gustukoena duzun gaia edo kategoria?



Iturria: Ikusiker Applika +

Youtube erabiltzeko duten maiztasunari erreparatuta, erdia pasak gutxienez egunean behin erabiltzen du, % 56,4k; are gehiago, % 22,6k egunean behin baino gehiagotan erabiltzen duela dio. Beste erdiaren kasuan, astean behin baino gehiagotan erabiltzen dutenak dira nagusi (% 27,9k diote astean 2-5 aldiz erabiltzen dutela); astean behin edo gutxiago erabiltzen dutenak % 15,7 dira.


3. Irudia – Zenbatero erabiltzen duzu Youtube?



Iturria: Ikusiker Applika +

Inkestatuen artean joera desberdinak daude astean zehar Youtube noiz erabiltzen den begiratzuz gero. Talderik handienak adierazten du antzeko erabilera egiten duela (% 34,5ek), baina % 27,5ek astegunetan gehiago erabiltzen duela dio eta % 38,0k, aldiz, asteburuan.


4. Irudia – Noiz erabiltzen duzu gehiago Youtube, astegunetan ala asteburuetan?



Iturria: Ikusiker Applika +

Plataforma horretan pasa nahiko luketen denborari buruz pentsatzen jarrita, % 67,4k konforme dagoela adierazten du (“ez gehiago eta ezta gutxiago ere” aukeran kokatu dira). Hala ere, laurden batek denbora gutxiago pasa nahiko lukeela adierazten du (%18,6k “apur bat” gutxiago eta % 5,8k “askoz” denbora gutxiago), eta % 8,1ek denbora gehiago (% 6,7k “apur bat” eta % 1,4k “askoz” denbora gehiago).

5. Irudia – Aukera izango bazenu, denbora gehiago ala gutxiago pasatuko zenuke Youtube ikusten?




Iturria: Ikusiker Applika +

Zein maiztasunekin egiten diren ekintza batzuk Youtuben ere galdetu da. Galdetu diren ekintza guztien artean bi dira, beste guztien aldean nabarmen, askoz gehiago egiten direnak; are gehiago, esan daiteke plataformarekin harremantzeko bide aktiboan direla gutxien erabiltzen direnak eta pasiboenak gehien.

“Beste erabiltzaileek igotako edukiak ikusten” dira gehien: egunero behin baino gehiagotan egiten dute inkestauen % 19,6k egunero edo ia egunero % 29,2ek eta asteen behin baino gehiagotan % 21,9k. Bigarren maiztasun handiena “bideoetan ‘atsegin dut’ edo ‘ez dut atsegin’ emateak” jaso du, % 4,4k egunero behin baino gehiagotan egiten baitu, % 8,1ek egunero edo ia egunero, eta % 9,5ek asteen behin baino gehiagotan. Hala ere, % 60,7k dio ez duela inoiz “atsegin dut” edo “ez dut atsegin” erreakziorik izaten inoiz. Hurrengo lau ekintzak inkestauen hamarretik bederatzik baino gehiagok ez ditu inoiz egiten: bideoetan iruzkinak edo aipamenak idatzi, norberak grabatu eta editatutako bideoak igo, zuzenekoak egin (live) eta beste baten bideoa igo.

6. Irudia – Zein maiztasunekin egiten diren ekintza batzuk Youtuben




Youtubeko ekintzak

Iturria: Ikusiker Applika +

Youtube ikusteko erabiltzen den gailu nagusia telefono mugikorra da, % 60,3k hala erabili baitu. Segidan ordenagailu eramangarria dator, laurdenak aukeratuta (% 25,4k). Tableta % 8,5ek aipatu dute, mahaiko ordenagailua % 3,7k eta telebista pantaila % 1,7k.


7. Irudia – Zein da gehien erabiltzen duzun gailua Youtube ikusteko?



Iturria: Ikusiker Applika +

Zein eduki ikusi erabakitzeke gomendioak nondik jasotzen dituzten ere galdetu da, iturri nagusia (bakarra) adierazteke eskatuz. Inkestatu ia guztiak hiru iturritan bildu dira: erdiek baino gehiagok Youtubeko proposamenen atala aukeratu dute, % 54,6k; % 20,8k lagunak aipatu dituzte eta % 17,0k sare sozialak.


8. Irudia – Youtuben zer ikusiko duzun erabakitzeke orduan, nondik jasotzen dituzu gomendioak?



Iturria: Ikusiker Applika +

Youtuben ikusten diren edukiak zein hizkuntzetan egon ohi diren galdetuta, bi hizkuntza aipatzen dira: gaztelania da nagusi inkestatuen % 75en kasuan, eta % 22,6ren kasuan ingelesa. % 1,6k aipatu du euskara Youtuben ikusten dituen edukietako hizkuntza nagusi moduan.


9. Irudia – Youtuben ikusten dituzun bideoetan, zein da hizkuntza nagusia?



Iturria: Ikusiker Applika +

Plataforma honi emango lioketen puntuazioaz galdetuta, 0 eta 10 bitarteko eskala batean, 6,91ko puntuazioa jaso du batez beste. % 43,6k 8 eta 10 bitarteko puntuazio bat aukeratu du, % 54,7k 5 eta 7 bitartekoa, eta inkestatuen % 1,7k aukeratu du bostetik beherako puntuazio bat.

10. Irudia – YOUTUBERI buruzko balorazio orokorra eman beharko bazenu, nolako nota jarriko zenioke?




Iturria: Ikusiker Applika +

3. YOUTUBEKO SORTZAILEAK

Youtuben edukirik sortzen al duten galdetuta, gehienek ezetz adierazi dute (% 91,6k). Edukiren bat sortzen dutela esan duten 113 pertsonen galdera gutxi batzuk egin zaizkie plataforma honetan egiten duten sormen lanari buruz.


11. Irudia – Sortzen al duzu Youtuben edukirik? Youtuben edukiak ikusteaz gain, igo al duzu inoiz bideorik edo egin duzu inoiz zuzenekorik?



Iturria: Ikusiker Applika +

Gehien sortzen diren eduki motak hiru kategoriatan kokatzen dira: “vlogak” (% 13,9k aipatuta) “lagunekin egindako bilkuren bideoak” (% 13,3k) eta “gamer estiloko bideoak” (% 11,1ek). Segidan datoz “komediazko bideoak (% 8,3), “kantuen bertsioak eta kantu propioak abesten ditudan bideoak” (% 6,9), eta “tutorialak (makillajea, moda, eskulanak, kirola...)” (% 6,7).


12. Irudia – Youtuberako sortzen dituzun bideo eta eduki horien artean, zein da gehien sortzen duzun eduki mota?



Iturria: Ikusiker Applika +

Hizkuntzari dagokionez, bostena eskasek adierazten du (% 19,8k) euskarak gaztelaniak besteko pisua edo gehiago duela sortzen dituen edukietan. Hala ere, talderik handiena edukiak beti gaztelaniaz sortzen dituenena da, % 51,9 baitira).

13. Irudia – Hizkuntza aldetik, zenbateko pisua du euskarak Youtuberako sortzen dituzun edukietan?



Iturria: Ikusiker Aplikazioa +